

Zierbena Euskal AEko biztanleko Barne Produktu Gordin handiena duen udalerria izan da 2023an

Oro har, Barakaldo da lurralde ekonomiko osoan BPG gehien sortu zuen udalerria, hiriburuak kontuan hartu gabe

2023an, Zierbena —Bizkaia— da Euskal AEko biztanleko BPG handiena duen udalerria, 539.311 eurora iritsiz, Eustatek landutako datuen arabera. Ondoren datoz Zamudio —hau ere Bizkaian— eta Olaberria —Gipuzkoan—.Aurreko urtearekin alderatuta, bi aldeketa nagusi gertatu dira: Zierbena lehen postura iritsi da, batez ere energia elektrikoaren produkzioari eta banaketari lotutako jardueren ondorioz, eta, hortaz, Zamudio bigarren postuan geratzen da. Gainera, Añanako eskualdeko Berantevilla top 10ean sartu da manufaktura-industriari esker, batez ere aeronautika-industriarako garraio-materialaren fabrikazioari esker.

Euskal AEko udalerriak, biztanleko BPG handiena dutenak. 2022-2023

	Hurrinkera 2023	Biztanleko BPGa (euroak)	Hurrinkera 2022	Biztanleko BPGa (euroak)
Euskal AE		42.313		39.587
Lurralde historikoa				
Araba/Álava		44.889		41.695
Bizkaia		41.090		38.616
Gipuzkoa		43.065		40.157
Udalerriak				
Zierbena	1	539.311	3	350.210
Zamudio	2	503.249	1	476.590
Olaberria	3	384.286	2	441.156
Aduna	4	280.034	4	262.438
Ajangiz	5	259.319	6	228.892
Lolui	6	240.972	7	221.528
Mallabia	7	237.976	5	250.486
Arama	8	197.777	8	207.741
Berantevilla	9	177.192	15	127.217
Etxebarria	10	173.321	10	162.071

Data 2025eko Abenduaren 18a

Iturria: Eustat. Udal BPG

BPGri dagokionez, oro har —hau da, udalerriko biztanleria kontuan hartu gabe, Bizkaiko Bilbo Handiko eskualdean, hiriburuaren atzetik— Barakaldo da Euskal AEren barruan Barne Produktu Gordin handiena sortzen duen udalerria, 2.884.490 mila euroekin, hots, Euskal AEko BPGren % 3,1. Barakaldoren atzetik, Irun (Bidasoa Beherea, Gipuzkoa) 2.143.434 mila euroekin eta BPG osoaren % 2,3rekin, eta Getxo (Bilbo Handia, Bizkaia) 1.987.353 mila euroekin, eta BPG osoaren % 2,1ekin agertzen dira. Lehen hiru udalerrri horien eta hiru lurralde historikoetako hiriburuaren artean, Euskal AEko BPGren % 44 biltzen da. Bilbo (14.252.770 mila euro) da 2023an BPG handiena duen hiriburua, hau da, Euskal AEko jarduera ekonomikoaren % 15,3; ondoren Gasteiz dago, 10.717.525 mila euroekin, eta Donostia, 9.019.605 mila euroekin —Euskal AEko jarduera ekonomikoaren % 11,5 eta % 9,7, hurrenez hurren—.

Euskal AEko udalerriak, BPG handiena dutenak. 2023

	BPG guztira (mila euro)	BPG osoaren gaineko %
Euskal AE	93.242.571	100
Hiriburuak		
Bilbao	14.252.770	15,3
Vitoria-Gasteiz	10.717.525	11,5
Donostia / San Sebastian	9.019.605	9,7
Udalerriak		
Barakaldo	2.884.490	3,1
Iruñ	2.143.434	2,3
Getxo	1.987.353	2,1
Leioa	1.944.225	2,1
Zamudio	1.630.526	1,7
Amorebieta-Etxano	1.584.464	1,7
Basauri	1.452.288	1,6
Erandio	1.308.965	1,4
Arrasate / Mondragon	1.159.706	1,2
Santurtzi	1.092.908	1,2

Data 2025eko Abenduaren 18a

Iturria: Eustat. Udal BPG

Industria da sektore nagusia Araban biztanleko BPG handiena duten eskualdeetan

Arabako Errioxako eskualdeak Arabako lurralde historikoko BPG osoaren % 5,2 ordezkatzen du; hala ere, biztanleko BPG handiena duen eskualdea da, bai lurraldean, bai Euskal AEn. Eskualde horretako udalerrien sektorekako banaketak berezitasunak ditu gainerako eskualdeekin alderatuta, mahastizaintza- eta ardogintza-jarduerak presentzia handia baitu eskualde horietan; izan ere, proportzioan gainerako eskualdeetan baino nekazaritza-produkzio handiagoa du, eta bertako industriak ardoa egiteko prozesuekin lotura handia du. Hori argi eta garbi ikus daiteke Guardiako udalerrian, non nekazaritza % 5,7ra iristen den, eta banaketa berdinzaleagoa ikusten den industria-sektorearen (% 46,3) eta zerbitzuen sektorearen (% 46,6) artean, biak ala biak mahastizaintza- eta ardogintza-sektorearekin oso lotuta baitaude: alde industrialean, edarien fabrikazioagatik eta horien enbalajeengatik, eta zerbitzuen sektorean, ostalaritza-adarraren eskaintza handiagatik.

Bestalde, Añanan daude Arabako lurraldean biztanleko BPG handiena duten udalerrietako bi: Berantevilla eta Erribera Beitia. Lehenengoan, industria-sektoreak bere pisua handitu du azken urteetan, bere jarduera ekonomiko osoaren % 80,2ra iritsiz, eta gainerakoen gainetik nabarmentzen dira industria aeronautikorako garraio-materiala fabrikatzeko manufaktura-jarduerak. Erribera Beitiako produkzio-egituran ere garraio-materiala fabrikatzeko jarduerak dira nagusi, % 60 inguru, baina kasu honetan trenbide-materiala da.

Biztanleko BPG handiena duten Arabako eskualdeak eta udalerriak eta horien banaketa 4 sektoretan. 2023

	Biztanleko BPG (euro)	Banaketa jarduera-sektorearen arabera (%)			
		NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Araba/Álava	44.889	1,2	29,5	4,4	64,9
Eskualdeak					
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	66.153	7,8	50,3	2,8	39,1
Añana	64.746	5,3	56,9	3,1	34,7
Gorbeialdea / Etribaciones del Gorbea	59.372	2,6	58,6	2,1	36,7
Udalerriak					
Berantevilla	177.192	3,6	80,2	4,0	12,2
Legutio	143.945	0,6	73,2	1,0	25,2
Laguardia	126.988	5,7	46,3	1,4	46,6
Bernedo	103.235	6,8	14,8	0,4	77,9
Ribera Baja/Erriberabeltia	98.152	0,9	58,7	2,0	38,4

Data 2025eko Abenduaren 18a


Iturria: Eustat. Udal BPG

Halaber, Gorbeia Inguruak eskualdean Legutio nabarmentzen da Araban biztanleko BPG handiena duten lehen 5 udalerrien artean. Biztanleko BPG handiena duten udalerri gehienetan bezala, Legutiok industrian oinarritzen du bere produkzio-egitura, eta kasu honetan metalaren adarrak nagusitzen dira, hala nola Ingeniaritza mekanikoa eta Siderurgia.

Azkenik, Arabako Lurralde Historikoan biztanleko BPG handiena duten bost udalerrien artean, laugarren postuan Bernedo dago, Arabako Mendialdean, zerbitzuetan oinarritutako produkzio-egitura oso altuarekin (% 77,9); bertan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza adarra nabarmentzen da % 6,8rekin.

Biztanleko BPG, Arabako udalerrien arabera. 2023

Euroak



Iturria: Eustat. Udal BPG

Bizkaian biztanleko BPG handiena duten hiru udalerri Bilbo Handiko eskualdekoak dira

Bilbo Handia eskualdean, Zamudio eta Loiu ere nabarmentzen dira, Zierbenarekin batera, biztanleko BPG handia dutelako. Lehenengoak, teknologia-parkearen jarduerari lotuta, manufaktura-industriaren barruan banatzen du bere produkzio-egitura, eta garrantzi berezia du garraio-materialaren produkzioaren sektorean eta zerbitzuen sektorean, bereziki industriari lotutako jarduera profesional eta teknikoetan. Loiuak, berriz, zerbitzuetan oinarritutako sektore-egitura du. Zerbitzu horiek udalerriko BPGren % 64,7 sortzen dute, eta aireportuko jarduera dute euskarri (aireko garraioa eta hari atxikitako zerbitzuak); jarduera horiek % 29,4 ordezkatzeko dute.

Biztanleko BPG handiena duten Bizkaiko eskualdeak eta udalerriak eta horien banaketa 4 sektoretan. 2023

	Biztanleko BPG (euro)	Banaketa jarduera-sektorearen arabera (%)			
		NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Bizkaia	41.090	1,1	19,1	5,8	74,0
Eskualdeak					
Durangaldea / Duranguesado	56.169	0,5	34,6	3,9	61,0
Bilbo Handia / Gran Bilbao	41.598	0,1	15,8	6,1	77,9
Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión	35.941	3,9	36,8	5,0	54,3
Udalerriak					
Zierbena	539.311	0,2	83,2	1,3	15,3
Zamudio	503.249	0,1	47,8	5,7	46,4
Ajangiz	259.319	1,1	75,6	0,4	22,9
Loiu	240.972	0,2	29,4	5,8	64,7
Mallabia	237.976	0,9	75,0	0,8	23,3


Data 2025eko Abenduaren 18a

Iturria: Eustat. Udal BPG

Bestalde, Ajangizek, Gernika-Bermeo eskualdean, eta Mallabiak, Durangaldean, egitura produktibo oso antzekoa dute. Bi kasuetan industria jarduera % 75 ingurukoa da eta zerbitzuak Barne Produktu Gordinaren % 23 dira. Hala ere, horiek sostengatzen dituzten jarduera ekonomikoen adarrak oso desberdinak dira. Ajangizek plastikozko produktuen fabrikazioan oinarritzen du bere industria, eta zerbitzuak, berriz, ingeniariaritzaren eta arkitektura bezalako jarduera profesionaletan eta finantza-zerbitzuetan; aitzitik, Mallabiak automobilgintzarako garraio-materialaren fabrikazioarekin eta ingeniariaritzaren mekanikoarekin lotzen du bere manufaktura-jarduera.

Biztanleko BPG, Bizkaiko udalerrien arabera. 2023

Euroak



Iturria: Eustat. Udal BPG

Goierri eta Tolosaldea eskualdeetan biltzen dira Gipuzkoan biztanleko BPG handiena duten udalerriak

Gipuzkoako lurralde historikoan biztanleko BPG handiena duten 5 udalerriak Goierri eta Tolosaldea eskualdeetan daude. Bestalde, biztanleko BPG handiena duten hiru eskualdeak Donostialdea, Goierri eta Debagoiena dira; hiruren artean Gipuzkoako BPG osoaren % 68 osatzen dute. Donostialdearen kasuan, bere jardura zerbitzuen inguruan zentratuta dago argi eta garbi; hala, % 78,6ko pisua du bere egitura ekonomikoan. Goierri eta Debagoiena eskualdeek, berriz, industriaren eta zerbitzuen arteko parekotasun handiagoa duten egiturak dituzte.

Olaberria —Goierri— lehen postuan dago Gipuzkoan, biztanleko 384.286 euroko BPGrekin. Udalerririk horrek jardura industriadun bideratzen du (% 77,4), siderurgiarekin, energia elektrikoarekin eta, oro har, makineriarekin lotutako jardueretara, hain zuzen ere.

Eskualde horretan bertan Arama eta Ormaiztegi daude, biztanleko 197.777 eta 139.727 euroko BPGrekin, hurrenez hurren. Aramak % 71,4ko pisu industrial du, batez ere makineriaren eta ekipo-ondasunen produkzioan oinarritua. Ormaiztegi, ordea, Euskal AEko industria-kontzentrazio handiena duen udalerria da, % 87,7rekin, ibilgailu motordunak fabrikatzeko jardueraren presentzia handia dela eta.

Biztanleko BPG handiena duten Gipuzkoako eskualdeak eta udalerriak eta horien banaketa 4 sektoretan. 2023

	Biztanleko BPG (euro)	Banaketa jarduera-sektorearen arabera (%)			
		NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Gipuzkoa	43.065	0,7	27,7	5,5	66,1
Eskualdeak					
Donostialdea	44.551	0,2	15,8	5,5	78,6
Goierrri	46.900	0,7	52,7	4,9	41,6
Debagoiena / Alto Deba	49.984	0,7	47,2	2,8	49,3
Udalerriak					
Olaberria	384.286	0,2	77,4	1,5	20,9
Aduna	280.034	0,4	55,7	4,2	39,8
Arama	197.777	0,5	71,4	1,7	26,4
Altzo	157.887	0,9	74,9	1,3	22,9
Ormaiztegi	139.727	0,4	87,7	0,5	11,5


Data 2025eko Abenduaren 18a

Iturria: Eustat. Udal BPG

Gipuzkoan biztanleko BPG handiena duten udalerrien artean, Aduna (Tolosaldea) da industriaren eta zerbitzuen artean pisua ondoen banatzen duen udalerria, ibilgailu motordunen fabrikazioarekin eta industria ez-metalikoarekin lotutako industria-jarduerak handizkako merkataritzako jarduerekin konbinatuta.

Biztanleko BPG, Gipuzkoako udalerrien arabera. 2023

Euroak



Iturria: Eustat. Udal BPG

Azkenik, Altzo —hau ere Tolosaldean kokatua— laugarren postuan dago Gipuzkoako rankingean; beste behin ere, industrian duen pisu handiari esker (% 74,9), zementua, karea eta igeltsua produzitzen baititu.

Oharra:

Biztanleko BPGk —udalerrri bakoitzeko BPG osoaren eta biztanleriaren arteko zatidura gisa lortua— homogeneotasun handiagoa ahalbidetzen du biztanle kopuru oso desberdineko udalerrrien arteko BPGren konparazioan.

Datuak hobeto interpretatzeko, **udalen BPGren** eta **udal-errentaren** kontzeptuen arteko bereizketa azpimarratu behar da. BPGa produkzioari eta lurraldean aberastasuna sortzeari lotuta doa, eta produkzio-establezimendu garrantzitsuak dituzten udalerrietan kontzentratzen da. Errenta, aldiz, pertsonei eta hauen bizilekuari lotuta dago.

2023an izandako hedapenarekin, Bizkaiko Lurralde Historikoko Bilbo Handiko eskualdean kokatutako **Usansolo** udalerria gehitu da. Horrenbestez, Lurralde Historikoen arabera, udalerrriak honela banatzen dira: Bizkaian 113 (% 45), Gipuzkoan 88 (% 35) eta Araban 51 (% 20).

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62